

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak baliabide asko ditu beharrezkoak direnak bere funtzionamendua bermatzeko. Gainera, oso garrantzitsua da baliabide horiek ahalik eta hoberenak izatea, horrela produktu hobea salduko diegu gure kontsumitzaileei, eta gainera gure ispiluak beharrezkoak dituen baliabide batzuk oso garrantzitsuak dira gure ispiluaren funtzionamendua aurrera ateratzeko.

Hasteko, gure proiektua aurrera ateratzeko behar dugun funtsezko baliabideetako bat, softwarea izango da. Izan ere, gure ispiluak sensorearen bitartzen lortzen duen informazioa, esaterako gure proiektuaren kontsumitzaileen neurriak edota behar dituzten tallak; sensore horren bitartez bidali behar ditu ordenagailura, gero arropa gomendatzeko momentuan gure kontsumitzaileak behar dituen tallak bermatu ditzakegun ikus ahal izateko eta beraiek gero ea gustuko dituzten ikusteko.

Bigarrenik, beste funtsezko baliabide bat makineria egoki bat da, izan ere, gure proiektua osatzen dituen piezak punta-puntako eta efikazak diren tresnak erabiltzen lotu edota konektatu behar ditugu. Horrela, gure ispiluaren funtzionamendua ahalik eta hobereana izateko, eta horrela kontsumitzaile gehiago lortu ahal izateko. Tresnak ezin dituzte gure baliabideak hondatu, izan ere baliabide hauen prezioa oso altua da eta ezin dugu hauen erabilera desegoki bat egin.

Bestetik, zerbitzari bat beharrezkoa izango dugu, gure enpresak jasotzen dugun informazio guztia jaso izan ahal izateko. Garrantzitsua da zerbitzari bat edukitzea, gure salmentak, erositako piezetan gastatutakoa, non saldu ditugun, baliabideak noiz iritsiko diren... leku zehatz batean jaso izan ahal izateko.

Bukatzeko, ispiluak funtzionatu ahal izateko kristala oso garrantzitsua da. Hasteko, bertan ikusiko du kontsumitzaileek gomendatzen diegun arropa nola gelditzen zaien eta ea gustatzen zaien ikusi ahal izateko. Gainera, ispilu normal bat bezala funtzionatu beharko luke, horrela etxean erosleek ez dituzte ispilu normalak eduki beharko, gure ispiluarekin

nahiko izango dute. Baliabide hau oso garrantzitsua da ahalik eta hoberena izatea, garrantzia handia dauka gure ideiarene funtzionamenduan.